

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEKO LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEEI ZUZENDURIKO HONDAKINEI BURUZKO KANPAINA

2025-2026 IKASTURTEA

EKIN!

LH

2. EDIZIOA



SARRERA

Tolosaldeko Mankomunitateko biztanleok egunero-egunero hondakinak sortzen ditugu gure etxeetan, eskoletan, lantegietan, dendatan... Hondakinak gure bizitzetan ohikoak izan arren, arazo larria dira, asko eta maiztasun handiarekin sortzen ditugulako.



Ez da lan erraza! Goizean ohetik jaikitzen garen momentutik etengabe ari gara hondakinak sortzen. Mankomunitateak Tolosaldeko biztanleriak sortzen dituen hondakinak behar bezala kudeatzeko ardura du, baina lehenengo lana herritarrena da, hau da, bakoitzari dagokio sortzen dituen hondakinak gaika sailkatzea.

Zuek zein hondakin sailkatzen dituzue zuen etxeetan?



Osatu ondorengo galdetegia:

- Zein herritan bizi zara?
- Zure iritziz, zuen etxean hondakin asko sortzen al da egunero?

- ☐ Bai
- ☐ Ez
- ☐ Batzuetan




1 Ondorengo taulan, Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako biztanleak 2024ean egunean sortu zuten batezbesteko hondakin kopurua ageri da, baita Mankomunitateko batezbestekoa ere.

HERRIA	SORTUTAKO HONDAKINAK (kg/bizt/egun)	HERRIA	SORTUTAKO HONDAKINAK (kg/bizt/egun)
ABALTZISKETA	0,697	ELDUAIN	0,519
ADUNA	0,743	GAZTELU	0,392
ALBIZTUR	0,793	HERNIALDE	0,800
ALKIZA	0,758	IBARRA	0,849
ALEGIA	0,813	IKAZTEGIETA	0,630
ALTZO	0,561	IRURA	0,760
AMEZKETA	0,646	LARRAUL	0,617
ANDOAIN	0,805	LEABURU	0,916
ANOETA	0,674	LIZARTZA	0,686
ASTEASU	0,736	ORENDAIN	0,426
BALIARRAIN	0,456	OREXA	0,822
BELAUNTZA	0,781	TOLOSA	0,959
BERASTEGI	0,451	VILLABONA	0,802
BERROBI	0,726	ZIZURKIL	0,740

MANKOMUNITATEA 0,827 (kg/bizt/egun)


Ondorengo grafikoan zure herria ez da agertzen (Oreindarra edo Tolosarra ez bazara behintzat). Datuei erreparatu eta marraztu zure herriari dagokion zutabea. **Non kokatzen da zure herriko datua grafikoan, Mankomunitateko zutabearen ezkerraldean edo eskuinaldean?**

Lagungarri gisa, 2 herrietako datuak eta mankomunitateko batezbesteko datuak jarri ditugu.



Hausnarketa egiteko garaia da. Zenbat sortzen dugu gure herriko biztanleak, batezbestekoak baino gehiago edo gutxiago? Zer suposatzen du horrek guztiak?

Hondakinen arazoari aurre egiteko, 3 gako nagusi daude. Ezagutzen al dituzu? Osatu irudiko hutsuneak.



MURRIZTU

2 EROSKETAK

Gure eguneroko bizitzan jarduera arrunta da erosketak egitea. Nahiz eta sinesgaitza iruditu, gure erosketek erlazioa zuzena dute sortzen ditugun hondakin kopuruekin.

Beheko irudian hainbat pertsona agertzen dira, eta horietako bakoitzak ohitura egokiak edota desegokiak ditu erosketak egiterakoan. Zuen lana pertsona horien ekintzak aztertzea eta azpian dagoen taula osatzea da. Horretarako, erosle bakoitza ohitura egokiak  edota desegokiak  dituen taldean barneratuko duzue, eta talde horretan sartzearen zergatia azaldu.



TALDEA	IZENA	ZERGATIA
		
		

Zuek ere parte hartu dezakezue erosketak egiteko garaian. Eman aholku egokiak zuen etxekoei!


3 GURE HAMAIKETAKOA

Gure eguneroko hamaiketakoan, hondakinak sortzen ditugu. Egin dezagun hausnarketa labur bat. Horretarako, osatu jarraian agertzen den taula, gaur ekarritako hamaiketakoa erreferentzia gisa erabiliz.

DESKRIBATU ZURE HAMAIKETAKOA	ZEIN HONDAKIN SORTU DUZU HAMAIKETAKOA JATEKO GARAIAN?

Orain, ahoz gora eta irakaslearen laguntzarekin, idatzi arbelean gaur zuen gelan sortu diren hondakinak zeintzuk diren, zein pisu duten eta zer egin daitekeen horiek murrizteko. Pentsatu hamaiketakoa ekartzeko, beste modu batzuk, beti ere hondakin gutxiago sortzeko asmoz.

BERRERABILIA




4 Jakingo al zenuke esaten zer esanahi duen berrerabili hitzak? Eta birziklatu hitzak? Esanahi berdina al dute?

	Esanahia nire ustez	Definizio egokia (irakaslearen laguntzaz)
		
		

Orain zuen irudimena lantzeko ordua da. Jarraian hondakinen irudi batzuk dituzue, zuen lana hondakin horiek nola berrerabili daitezkeen pentsatzea da, adibideak jarritz.

HONDAKINA	NOLA BERRERABILI?
	
	

HONDAKINA	NOLA BERRERABILI?
	
	
	



Goazen berrerabiltzera!

Tapoi biziak egitera ausartzen zara? Oso erraza da. Beharrezkoak dira:

- Plastikozko tapoia
- Mugitzen diren begiak
- Kola
- Errotulatzailerak iraunkorrak



BIRZIKLATU

5 Hondakinak birziklatu ahal izateko, lehenik eta behin gure etxeetan, eskoletan, jangeletan, kiroldegietan... gaika sailkatu behar ditugu.

Jakingo al zenuke esaten zein 5 modu ezberdinetan jasotzen den materia organikoa Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan?

<https://tolosaldekomankomunitatea.eus/zerbitzuak/nire-herriko-bilketa/>

Aztertu ondorengo herrietako bilketa: Alegi, Altzo, Berrobi, Hernialde eta Zizurkil.

1	
2	
3	
4	
5	

Materia organikoa jasotzeko zein bilketa sistema erabiltzen da zure herrian?

.....

Bilketa sistemak ezberdinak izan arren, hondakinen sailkapenak eta koloreak bat egiten dute bilketa guztietan. Hori horrela, jakingo al zenuke esaten non utzi behar diren jarraian agertzen diren hondakinak? Idatzi hondakin bakoitzari alboan dagokion bilketa lerroaren zenbakia.



BEIRAZKO ONTZIAK



ONTZI ARINAK



PAPERA ETA KARTOIA



ORGANIKOA



ERREFUSA



OLIOA





ARROPA ETA OSAGARRIAK



KAFE-KAPSULAK




GARBIGUNEA

6 Ondorengo galderak erantzun ahala, eraman zenbaki bakoitzari lotutako hizkia beheko laukira, modu horretan, gure kanpainako mezua lortuko duzu:

- A) Zein kolore du papera eta kartoia biltzeko erabiltzen den edukiontziak? $\frac{1}{2} \frac{3}{4} \frac{5}{6}$
- B) Zein bilketa lerrotan utzi behar da brik ontzia? $\frac{7}{8} \frac{2}{4} \frac{6}{5}$
- C) Zein material erabiltzen da ardo botilak egiteko? $\frac{9}{10} \frac{4}{2} \frac{6}{6}$
- D) Hondakin arriskutsuen etxoletan utz daitekeen hondakina da. Sukarra neurtzeko erabiltzen zen. Zer da?
- $\frac{11}{10} \frac{2}{12} \frac{1}{2} \frac{4}{8} \frac{13}{12} \frac{8}{8} \frac{14}{10} \frac{2}{11} \frac{8}{11} \frac{10}{10} \frac{14}{2} \frac{8}{8} \frac{6}{6}$
- E) Zein hondakin mota utzi behar da edukiontzi laranja? $\frac{8}{15} \frac{4}{8} \frac{6}{6}$
- F) Plastikozkoa izan daiteke baina ez da ontzia. $\frac{16}{10} \frac{15}{8} \frac{14}{6}$



7 Hondakinak herritarrek gaika jaso ondoren, Tolosaldeko Mankomunitateko langileek bilketa mota bakoitzeko hondakinak jaso, eta gune ezberdinetara bidaltzen dituzte; esaterako edukiontzi horiko hondakinak Urnietako sailkatze plantara bidaltzen dira. Bertan, hondakinak eginda dauden material motaren arabera sailkatzen dira, ondoren beste lantegi batzuetan birziklatu eta produktu berriak egiteko.

Ikusi ondorengo bideoa eta adierazi jarraian agertzen diren esaldiak egia edo gezurrak diren.

<https://www.youtube.com/watch?v=YxwLW9ocTwQ>



	EGIA	GEZURRA
Sailkatze plantan jasotako hondakin guztiak nahastu eta fardoak egiten dira.		
Hainbat makina erabiliz, hondakinak material motaren arabera sailkatzen dira.		
Metalezko eta plastikozko hondakinak elkartu egiten dira.		
Plastikozko (PET motako) hondakinetatik jantzi berriak egin daitezke.		
Aluminiozko hondakinak bobinak egiteko erabiltzen dira.		
Birziklapenak ekonomia lineala sustatzen du.		

8 PRODUKTU BERRIEN SORRERA

Hondakinak gaika bilduz eta dagozkion bilketa lerroan utziz, hondakinak birziklatzeko aukera dago. Baina ba al dakizu zein produktu berri sortzen diren hondakin bakoitzarekin? Ea asmatzen duzun! Osatu ondorengo hutsuneak irudi bat aukeratuz eta idatzi formulari dagokion esaldia, adibidea jarraituz:

550 x  = 
550 aluminio-lata = aulki baten zatiak

 Freskagarri lata	 Jantzi polarra	 Liburua
 Kontserba lata	 Zapata kaxa	

													
80 x							=						
6 x							=						
40 x							=						
8 x							=						
8 x							=						
22 x							=						

80 = bizikleta-haguna

8 = sukaldeko eltze bat

6 brik ontzi =

8 zereal kaxa =


40 plastikozko botila =

22 = kamiseta bat


9 ASMA ITZAZU JOKABIDE ZUZENAK



OROKORREAN



ORGANIKOA



BEIRAZKO ONTZIAK



ARROPA

Birziklapenak hondakinak lehengai gisa erabiltzeko aukera ematen digu produktu berriak sortuz. Horrez gain, ingurumenari onura handiak ahalbidetzen dizkio, esaterako:



SORTUTAKO CO₂ ISURIAK
MURRIZTEN DIRA



ENERGIA
AURREZTEN DA




LEHENGAIAK ERAUZTEA
SAIHESTEN DA

Ba al zenekien?




10
BEIRA-BOTILA
BIRZIKLATUZ
AURREZTUTAKO
ENERGIAREKIN...



4 KIDETAKO FAMILIA
BATEN GARBIGAILUA
6
ALDIZ JARTZEKO
ADINA ENERGIA
AURREZTEN DA




ZURE SAKELAKO
TELEFONOA
300
ALDIZ KARGATZEKO
ADINA ENERGIA
AURREZTEN DA



TELEBISTA
4
EGUNEZ PIZTUTA
MANTENTZEKO ADINA
ENERGIA AURREZTEN
DA

EKIN!



MURRIZTU!
BERRERABILI!
BIRZIKLATU!
AHALEGINAK MEREZI DU